



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

99. zenbakia

2021eko apirilak 29 – maiatzak 12

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Zuzendaritza Batzordeak UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean egin du bilera

2010. urtetik Euskal Herriko Unibertsitatea eta Soziolinguistika Klusterra estrategia komunaren garapenerako hainbat lankidetzaren proiektuan ari dira eskuz-esku.

Ikerketak

Hegoaldeko lehen hezkuntza-irakasleen eleaniztasun eta metodologia-usteak

[Doktorego-tesia, EHU] Eskuarterko doktorego-tesiaren helbururik behinena da irakasleen eleaniztasun- eta metodologia-usteak ezagutu eta horietatik guztietatik esanguratsuenak identifikatzea. Ikerlanaren euskarri teorikoak Focus on Multilingualism ereduak eta susperra...

New York hirian 700 hizkuntza mintzo dira

[Multilingual maters, ingelesez] Mapa interaktibo honek New York hirian 700 hizkuntza mintzo direla adierazten digu @Multi_Ling_Mat

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Udaltopeko hitzaldien bideoak webgunean

[Udaltop] Udaltopen XIII. edizioa bukatuta, bertan bizitako guztia jasotzen duten bideoak webgunean zintzilikatu ditugu. Topaketa zoom bidez jarraitu zenuten guztiontzat bi egunetan esandakoa gogorarazteko baliagarria izango zaizue; eta gainontzekoontzat, material ...

Eneritz Zabaleta: "Lege berriari esker euskara ikasgaia ikasle guztiek izango dute"

[Hamaika] Hizkuntza gutxituen lege berriari buruz hitz egin dugu Eneritz Zabaleta zuzenbidean doktorearekin. Legearen aurkako errekurtsua artikulua zehatz batean oinarritzen den arren, gainontzeko artikulua ere konstituzioaren aurkakotzat jo ditzake Konstituzio Konts...

Hizkuntza gutxituen aldeko aktibazio soziala: egoera eta etorkizunerako gakoak

[UIK] Euskaltzaleen Topagunearen kezka eta helburu nagusietako bat herritarrak euskararen alde aktibatzea izan da bere sorreratik. Helburu horrekin gauzatu duen egitasmorik garrantzitsuena eta ezagunena Euskaraldia da, jada bi edizio izan dituena.

Hizkuntzalari Euskaldunen V. Topaketan komunikazioak aurkezteko epea ireki da

[unibertsitatea.net] Hizkuntzalari Euskaldunen V. Topaketa antolatu du uztailaren 2an UEUren Hizkuntzalaritza Sailak. Aurtengo edizioa euskararen azterketa sinkronikoari eskainiko diote eta fonologia, sintaxia, bariasionismoa, semantika, dialektologia, edota psikohiz...

"New Contexts for the Use of Minoritized Languages/Varieties" nazioarteko kongresua, maiatzak 26/28

[NEWCON2020] "New Contexts for the Use of Minoritized Languages/Varieties" nazioarteko hizkuntzalaritza konferentzia bat da, Zadar Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Sailak, Londresko Unibertsitateko SOAS Munduko Hizkuntzen Institutuak, Mercator European Research Centre on Multilin...

Que foi da lingua en 40 anos de Estatuto?

[La Voz de Galicia, galizieraz] Galiziako estatutua indarrean sartu zenetik 40 urte pasatu dira.

Nola baloratu galizieraren egoera lau hamarkada hauen ostean? La Voz de Galicia antolatutako solasaldi honetan M^a Pilar García Negro, Henrique Monteagudo eta Malores V...

Liburuak eta artikulu zientifikoak

'Hizkuntza gutxiagotuak zaindu, euskara jagon' liburua, "gogoetarako tresna baliotsua"

[Euskaltzaindia] Euskaltzaindiak Jagon 21: Hizkuntza gutxiagotuak zaindu, euskara jagon liburua aurkeztu du gaur Iruñean. Nafarroako Gobernuaren laguntzaz editatu du lan berria Euskararen Akademiak, eta mendeurrenaren karian antolatutako XXIII. Jagon Jardunaldiko hitzaldiak biltzen ...

"Revitalizing endangered languages": a practical guide

[Cambridge University Press, ingelesez] Cambridge unibertsitateko argitaletxeak, Justyna Olko eta Julia Sallabank adituak koordinatzaile zirela, liburu hau argitaratu berri du. Kapitulu guztiak doan irakurri daitezke eta hizkuntzak biziberritzeko gida praktikoa izan ...

The differentiated role of language knowledge and linguistic acculturation strategies in the configuration of occupational aspirations: the case of the descendants of migrants in Western Catalonia

[Universitat de Lleida, ingelesez] Arrazoi ekonomikoengatik bizilekuz mugitzen direnen kasuan, hizkuntzak faktore garrantzitsua dira. Hau honela, harrera-herrialdeko hizkuntza nagusia ikasteak lan-merkatutarako ate ugari ireki ditzake. Zer gertatzen da, ordea, harrera-gizarte horretan hizkun...

Indigenous language education in Russia: current issues and challenges

[Journal of Multilingual and Multicultural Development, ingelesez] Errusian hizkuntza, kultura eta identitateak mantentzeko borrokan ari diren talde indigenen kopuru handia gorabehera, ikerketa gutxi egiten da errebendikazio kultural eta linguistikoari buruz. Ikerket...

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

UEMAk 30 urte bete ditu gaur

[UEMA] Gaur 30 urte sortu zuten UEMA, 19 udalek, Aizarnazabalen egindako batzarrean, 1991ko maiatzaren 5ean. Harrezkero, Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Tamainaz zein izaeraz askotarikoak dira...

Argantzonek Euskara Plan berri bat garatuko du, berme juridikoak bilatuz

[Arabako ALEA] Euskara Plana atzera bota behar izan zuen Argantzongo Udalak, Gaztela eta Leonen betoa eta euskararen ofizialtasunik eza direla eta. Adostasuna eta "berme juridiko handienak" bilatuko ditu aurten plan berri bat martxan jartzeko.

"Herritarrak eta euskara, aktibaziorako gakoak" hitzaldiaren inguruko Manex Agirrereren haria

[Twitter] Pasa dira egun batzuk @Oihaneder_etxean egon ginela, "Eragiteko janzten" zikloan, hizkuntza-aktibazioaz antolatutako jardunaldian (antolatzailer, @GEUelkartea, @LazarragaKE, @topagunea eta @ArabakoALEA). Hari labur (zin dagit) bat, orduetik bueltaka dabilkidan ga...

Arakatze Apreziatiboaz (blogeko sarrera)

[Allartean bloga - Garabide] DUELA 2-3 urte, Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen e5 egitasmoan parte hartzeko aukera izan nuen [5e: euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen]. Beste hainbat ekarpen teorikorekin batera, proiektuak arakatze apreziatiboar...



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala